**2021**
**URTARRILA**

# SOTOAN GORDEAK

## Miren Gorrotxategi




**ELEBERRI BELTZA**

ISBN: **978-84-18252-35-8**
ORRIALDEAK: **224**
FORMATUA: **12 x 19**
PREZIOA: **16,00 €**

Guggenheimeko erakusketa batean ikusi du Norak itzal bat, iheska, lekuz kanpo: beste garai baten gomuta. Ondoan du Alex, galdetu arren erantzunik lortuko ez duena; ez, behintzat, berak nahi lituzkeenaren ahotik. Egun berean jasoko du Norak aitaren heriotzaren albistea, eta horrek eramango du bikotea Noraren sorterrira, Vianara. Han, mahasti artean, galderak pilatuko zaizkio Alexi. Odolezko familian eta hautatutako familian isildutakoak, hitz erdiak eta estalitakoak zurrustan aterako dira, ardoa barrika pitzatuan nola, (H)Ilbeltza beka irabazlearen eleberri beltz honetan.



**MIREN GORROTXATEGI AZKUNE** (Azpeitia, 1981). Itzulpengintzan lizentziaduna eta Turismoan diplomatua da, eta azken urteotan euskara irakaslea da Bigarren Hezkuntzan. *33 ezkil* (Elkar) eleberria argitaratu zuen 2016an Augustin Zubikarai beka jaso ostean, eta eleberri horretan oinarrituriko *Hil Kanpaiak* filma estreinatu da 2020ko azaroan. 2017tik 2020ra kolaboratzaile izan da *Urola Kostako Hitza*n. 2019ko (H)ilbeltza bekari esker idatziriko *Sotoan gordeak* bere bigarren liburua da.

> **“Badauka genero beltzak halako erakarpen bat niretzat, eta ez dakit aurrerantzean libratzea posible izango den”.**

txalaparta
www.txalaparta.eus
9 788418 252358

Baztango Udala

ILBELTZA
EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko III. (H)ilbeltza bekaren irabazlea

**BILDUMA HONETAN**




